

# FOLKET I BILD: HERRIA IRUDITAN

## KULTUR ALDIZKARIEN BIZITZA

Kultur aldizkariaren bizitza Suezian ere ahula eta larria da. Erresumak eutsita bakarrik iraun dezake. Joan den urtearen azkenertan (1971) Gobernuak 1'35 milioi koroe eman du, hogeitamar kultur aldizkariaren eraldi edo kostuak zuzitzeko. Erresumak zorrak ordaintzen dizkien aldizkariaren artean dago "Bonniers litterära magasin" ere, Suezian azkeneko berrogei ure hauetako literatur aldizkari nagusia. Halare, bere gaitzaldian, "Bonniers litterära magasin"-en Zuzendaritzak aldizkaria urtero hamar aldiz ordez lau bider bakarrik ateratzea erabaki du. Estatuaren diru laguntza eta sokorri eta tradizioaren aipu eta guzti ere, erremediorekin gabe gainbehera doa: aldizkariaren kostuen erdia (50 mila koroe) Estatuaren esku dago, baina irakurleriaren urritzeak eta argitalpen kostuen ugartzeak, lepa zamarratik heldu eta geroz eta larriago dabilkigu. Hau da Suezian literatur aldizkari espetsuenaren zoria une hontan. Haundia gaizki badabil, txikiak nola dabilztan asma ditek.

Sorpresa haundia izan da, beraz, 1972 urtearekin batera irudi-aldizkari kultural berri baten sortzea: Folket i Bild - Kulturfront (2'50 koroe alea); hau da, herria iruditzen, kultur frontea. Sorpresa haundia, prentsiari sinestekotan Estatuaren diru laguntza oro arbuizatu hasi dela ikustean. Ta sorpresarik sorpresa jarraitzen dugu: propaganda deiak onartzen dira, baina artezari iruditzen zaizkien paper zokora botatzeko asmoz (aldizkariaren oinarriekin nolabait ados ez balira) eta halen bila inoiz ere ez ibiltzekotan; irakurleriaren ordainetatik bakarrik bizi nahi du; eta urtean 23 ale baino ez gutxiago ateratzea aginduz abiatu da. Marka da horixe, kultur aldizkariak ezin superbizirik agiri diren merkatu batetan batez ere, ta denborapasaia arinetarako irudi-aldizkariaren lehia eutsi ta zaildu behar-ko duelarik areago.

## BORROKALARI


Baina ez da argitaldieri eta kudeatzailearen adorea, kondizio haultan norgehiagokaren merkatu burrukan ekiteko, aldizkari honen jaiotza aipagarri egiten duena: Folket i Bild (FIB) aldizkariaren konzeptu edo burutapena da interes gehien bizten duena. Prentsa eta literatura guztia ari da, prozesu

hau honez gero bukatu ez badago behintzat, janedaneko literatura huts bilakatzeko: kontsumo gertatzen den kontsumorako literatura. Aldizkari berri honek ez du kontsumorako izan nahi, fronte bat sortzeko baizik.

FIB aldizkariak, Suezia-ko gizarte aseari patxada segurtatu ordez, burruka nahi du. Ta, egiazki, ez dirudi lotan egoteko. Lehenengo zenbakia-aren artikulu nagusia, k, muetratarako antzean, Uppsala inguruko dizka lantegi baten rapport bat eskaintzen digu. Bertako lan kondizioak koplarik gabe kritikatu dira. Lantegi hontan lehenengo gizonetako ari ziren lanetan. Piskana piskana, gizonetako lantoki berretara pasazari ala, halen lekuan emakumeak jarri ziren, aloger edo lansari askoz txikiagok, jakina (Hori Suezian baino lehenago asmatu zen Europako beste puntan. Aterratuta gabiltzala esango da gero!). Fabrika-ko santarioak ere jendeari eginkizun horietarakoan aguante haundia edukitzen irakasteko modukoak omen dira. Lan pausoa oso gorra. Horren truke kargudun txiki giza-ment duhan banatzen dituzte langileen artean buruko minarendako pastilak. FIB-eko albistariak lantegia ikustera ekorti zirenean, lantegi-iruzteak polizia hotsegin zion. Beraz, aldizkaria lehenengo zenbakia sortu ere baino lehenagotik salakuntza ta hauziarekin jatu da: berriemakale lantegira bainetik gabe sartu zirelako. Albistari-er informazio-er eman zieten langileak kalean gelditu dira, Suezia sozialista demokratikoan.

## TALDE LAGUNTZAILEAK

Aldizkari honen ideia Jan Myrdalen da. Myrdal "Txinako hau-zo baten rapporta" eta "Europar muturu baten aitorzak" liburuen Autorea da (ez nahas Gunnar Myrdal soziologorekin). Myrdalen asma burutzeko eske publiko bat egin zen: hilabete batzuetan 1300 herritarrek milioi erdiko baltsa bildu zuten, aldizkariaren abiadarako kapital moduan. Diru emakileok elkargo batetan lotu dira eta legearen aurrean argitaratzaile berakiek dira. Elkargoa herri-herri taldeetan eratu da: denetara 40 talde Suezia osoan. Taldeok ez dute dirua jarri bakarrik: zabalkunde eta informazio bilketan ere badute zereginik. Goian aipatutako disko lantegiaren rapporta, adibidez, Uppsala-ko taldeak prestatu zen. Haundia da, nola Uppsala bezalako herri polit batetik, halako gauza itsusiak jakin behar diren. Lehenengo zenbakia 120.000 ale-



tan zabaldu da. Erdia saltzen bada aldizkariak bere burua ongi paga izateko. Dena den, askotxo dirudi: "Bonniers litterära magasin"-ek bost mila harpidedun besterik ez du. Hau ez bezala, halare, FIB jende samaldarentzako aldizkari da, ez espezializatu eta elite eskolatuentzako. Jendetza langileak bildu nahi ditu irakurle. Idazten ere tadu langilerik: lehenengo zenbakia editoriala 60 urteko interiora batena da.

## LANGILEENTZAKO

FIB ez da jendea ahaztuenik zegoela zero oskarbitik bapatean eroritako oinartzarik. Lehenengo aldiz 1934ean deputatu komunista batek sortu zuen, Münzenberg-er Alemaniano "langileen irudi-aldizkariaren" antzera. Arrakasta haundia zuen urteotan langileen prentsa (Münzenbergerek lareun mila irakurle zuen astero. Nazien ilia Frantziaraturik, Stalinen morroiek hil zuten). Baina fronte antifaxista bateratuaren garaian FIB sozialdemokratikaren eskutara pasa zen. Garai hontan FIB-ek Suezia-ko "langile idazleen" edo literatura proletarioaren organo ofizial hainatsu balio zuen. Baina bigarren Mundu Gerraren ondorenean langile literaturaren girca asko hostu zen. Bizitza franko eskasa eramane ondoren, 1962an Bonniersek erosi zuen. Erosleak aldizkariaren xedek ez aldatzeko hitz eman zuen. Baina "langile literatura" ulerterko modu asko dago nonbait: gaur behinik behin, FIB-Aktuelt Sue-

aparte. (Beharbada Z-Agiak ere izanen luke noizpait?). Bertan idatzi nahi duen guztientzat irikita dago, aldizkariaren hiru oinarriok onartzeko: "Eritzi eta prentsa askatasunaren defentsa, kultura herritarren babespena eta burruka antimperialistaren laguntza". Suezian hiru oinarriok, orokarki, kontserbakor amorratuenek ez beste guztiek eman ohi diete balzkoa. Beraz, etorki politik txiki ezberdinetako hegats edo lumarik elkartuko da FIB-en orrietan. Lortu ere horixe lortu nahi bait da: aldizkaria, eritzi bakarren baten organo izateratu gabe, alde guztietarantz libre eta kritiko izan dadila. Ez inolako alderdiren mende eta ez Erresumaren diru laguntzaren azpian egon nahi du, bada. Kritika-erakoan ezerk ahoa tapa ez dizaiola.

## LIRIKA

Asmoak suziarrik hanitz sustatu du zinez. Lehenengo zenbakian orri faltaz argitaratzerik ez izanarren, ondondik jasotako eskuidazki morderak, hamar kilo pisatzen ziren. Bazter guztietatik ailegatu ziren kolaborazioak. Gehien-gehien bildu zena: lirika. Langleek, zer bai — eta lirika egiten dizute, behatz artean behin hegatsik hartuz gero. Fenomeno hau Alemanian eta Sobiet Batasunean bezalaxe USA-ko marjinatu talde eta hiripeetan ere argi eta garbi oharu ahal izandu da. Arrazoiak ezberdinak izanen dira, apika, batetik bestera: baina badirudi, langilearen ariman, eragipen eta egoera ezberdinek ere soinu bera ateratzen duen hari zena baita.

Euskal langilearen ariman oraindik doinurik atera ez duten hariak.

J. A.

## Hiru Egunetako Batzarraidiak Arantzazun

Euskaltzaindiak honako bilera hauek egin ditu Arantzazun uttailaren 27, 27 eta 29an:

Aditz batasuneko batzordeak uttailaren 27an bilkura bat egin zuten, Euskaltzaindiari aurkeztu behar zizkion aditz-jokoei azken orratzapena emateko.

Uztailaren 28an, goizean, Euskaltzaindiak bere hileroko batzar arunta egin zuten. Bertan, zortzi urte arteko eskola hiztegiaren hiru zatiri onartze jeneral bat eman zitzaion. Hiztegi zati hauek Donostiako Ordezkaritzako batzordeak prestatu dituzenez gero, heldu diren oharrak aztertzea ere batzorde horri berorri eskatzen zaien.

Igogien euskaltzain jaunak Erdi Aroko izen batzuen sorreraz txosten bat ekarri zuten.

Egun berean, arratsalde, Euskaltzaindiak barrenko bilkura berezia egin zuten, aditz batzordeak aurkeztutako aditza aztertzeko.

Azkenik, uttailaren 29an bigarren bilkura berezia egin zen, eta bertan batzordeak aurkeztutako aditz jokoa euskera idatzaren batasunerako egokienak bezala onartu ziren. Batzordeak aditz lan-guztizailearen zati bat baizik aurkeztu ez duenez gero, zati hori da oraingoz aztertu eta onartu egin dena.

(Euskaltzaindiaren Prensa Bulegoko Agiria)

## Iñoiz ikusi ez bezalakoa

# Piper



Gaur jo, eta bihar ikasiko duzu



BEMGO

HAMMOND ORGANOS

Elektroakustiko-injenieritza

Victor Pradera, 27

DONOSTIA



YOGUR  
**GURELESA**  
GOGOZKOENA

